



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urriaren 3a

113. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

—Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (19. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio-txostena, Berriozarko Udalari buruzkoa, 2011ko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukiari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Helburua (5. or.).

III. Norainokoa eta mugak (5. or.).

IV. Iritzia (6. or.).

IV.1. Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra (6. or.).

IV.2. Legezkotasuna (6. or.).

IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2011ko abenduaren 31n (6. or.).

IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (8. or.).

V. Udalaren 2011ko kontu orokorraren laburpena (9. or.).

V.1. 2011ko aurrekontu-betetzearen egoera-orria (9. or.).

V.2. 2011ko aurrekontu-emaizta (10. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2011ko abenduaren 31n (10. or.).

V.4. Egoera-balantzea 2011ko abenduaren 31n (11. or.).

V.5. Galera eta irabazien kontua 2011n (12. or.).

VI. Iruzkinak, ondorioak eta aholkuak (13. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (13. or.).

VI.2. Langileak (13. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (15. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (15. or.).

VI.5. Inbertsioak (16. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (17. or.).

VI.7. Hirigintza (18. or.).

Eranskina. Udalaren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

www.cfn Navarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bere jarduera-programari jarraituz, Berriozarko Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Berriozarko udalerrak 2,71 km²-ko azalera du, eta 2011ko urtarrilaren 1ean 8.931 biztanle ditu.

Berriozarko Udalak ez du erakunde autonomorik, baina bai sortu ditu zuzeneko kudeaketarako zenbait organo Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 192. artikuluen babesean; organo horiek zeinek bere atal berezia dute aurrekontuaren baitan, baina izaera juridikorik ez dute. Hauek dira:

- Kultura-koordinatzailea, kultura sustatzeko.
- Kirol Patronatua, kirola sustatzeko.
- Liara zentroa, familia-plangintzarako.
- Alba zentroa, emakumearen promozioa egiteko.

Berrikilan, S.L. izeneko udal enpresa publikoa sortu da 2011ko abenduan, 3.300 euroko kapital sozialarekin. Haren hasierako xedea, 2012tik, Udalaren kirol instalazioak kudeatzea da.

2011ko ekitaldia ixtean, Udalaren funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak (2011)	Aitortutako esku-bideak (2011)	Langileak, 2011-12-31n
Udala	9.861.274	7.074.176	107

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

- Iruñerriko Mankomunitatea: hark ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri-garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi-zerbitzuak.

- Antsoain, Berriozar, Itza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programak, harrera eta orientabide sozialaren zerbitzua, haurtzaroaren eta familiaren zerbitzua, gizareratzea eta lan munduan sartzeko zerbitzua, babestutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintza-zerbitzuak emateko.

Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2011n
Iruñerria	158.534
Gizarte Zerbitzuak	184.362

Burlatan dagoen Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan (EEZB) ere parte hartzen du.

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak	Errentamendua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua		X		
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua		X		
0-3 urteko haur-eskolak	X			
Musika Eskola	X			
Hirigintza	X			
Lorategiak	X			
Hiri-hondakinak		X		
Uraren ziklo integrala		X		
Garraio publikoa		X		
Liburutegia-ludoteka	X			
Kontsumitzaileen arreta zerbitzua			X	
Kaleen eta bideen mantentzea	X			
Kirolak	X			
Kirol-jardueren kudeaketa			X	
Udal kiroldegiak				X
Babestutako enplegu soziala		X		
Diru-bilketa exekutiboa	X		X	

Toki-entitateari 2011ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langile-riaren Estatutua.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki-entitatei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen alorrean, Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira araubide juridikoa ezartzen dutenak.
- Berriozarko Udalaren 2011ko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gainerako barne-arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa eta mugak. Laugarrenean, 2011ko kontu oro-

korraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2011ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Berriozarko Udaleko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Berriozarko Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontularitza-printzipio eta -irizpideei jarraituz betiere.

- Zenbateraino bete duten Udalak 2011n izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia.
- Udalaren finantza-egoera 2011ko abenduaren 31n.
- Ganbera honek 2010eko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Berriozarko Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren kontua: aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, Udalari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak ere; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak aztertu dira.

Lan honek muga bat izan du, hala ere: ezin izan dugu iritzirik eman udal honek 2011ko ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak zenbateraino bete dituen adieraziz, Nafarroako Gobernuak oraindik ere printzipio horiei Foru Komunitate honetako udaletan aplikatzeko araudi berezia eman ez duelako.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren irismenaren arabera, Berriozarko Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, eta kontuaren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. UDALAREN 2011ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak zehazki jasotzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko beharrezko informazioa biltzen du, aplikatzen den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2011ko ekitaldian Udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezketasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2011ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontuak 6,35 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 125 –hau da, 7,95 milioi– handitu da aurrekontu-aldaketaren bitartez: horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 14,3 milioikoak dira. Aldaketa horiek inbertsioen eta beren finantzaketaren atalean dute batez ere eragina.

Aitortutako betebeharrak 9,86 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 69ko betetze-maila izan dute. Maila hori justifikatzen da bereziki inbertsioen eta finantza-pasiboen kapituluetan egindako gastu txikiagoengatik.

Aitortutako eskubideak 7,07 milioi eurokoak dira, eta ehuneko 49ko betetze-maila izan dute; erantsi den diruzaintza-gerakina behin betiko aurreikuspenetatik kanpo uzten bada, ordea, ehuneko 93ko betetze-maila ateratzen da.

Gastuen izaerari begiratuz gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 64 eta ehuneko 35 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 90 dira; diru-sarrera horien ehuneko 50 jasotako transferentzietatik datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	37	Tributu bidezko diru-sarrerak	46
Bestelako gastu arruntak	27	Transferentziak	50
Inbertsioak	35	Ondare bidezko diru-sarrerak	4
Finantza-zama	1	Zorpetzea	0
	100		100

Hona Udalaren 2011rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2010ekoarekin izan duen aldeari buruzko datu ekonomikoak (eurotan):

	2010	2011	Aldea, portzenta- jea 2011/2010
Aitortutako betebeharrak, guztira	9.233.885	9.861.274	7
Likidatutako eskubideak, guztira	8.953.915	7.074.176	-21
Gastu-betetzearen ehunekoa	73	69	
Diru-sarreraren betetzearen ehunekoa	71	49	
Ordaintzen ehunekoa	89	88	
Kobrانتzen ehunekoa	87	85	
Gastu arruntak (1etik 4ra)	6.274.867	6.328.691	1
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	6.261.647	6.315.468	1
Inbertsioen gastuak (6 eta 7)	2.884.696	3.453.162	20
Finantza-eragiketen gastuak (8 eta 9)	74.321	79.421	7
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	7.159.471	6.389.935	-11
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	3.803.608	3.276.977	-14
Kapitaleko diru-sarrerak (6 eta 7)	1.794.444	684.241	-62
Diru-laguntzen menpekotasunaren ehunekoa	53	50	
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	61	52	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	- 205.649	- 2.707.677	1217
Aurrekontu-emaizta doituia	1.117.976	60.889	-95
Aurrezki gordina	897.824	74.467	-92
Finantza-zama (3 eta 9)	87.541	87.544	-
Aurrezki garbia	810.282	-13.077	-102
Zorpetze-mailaren ehunekoa	1,22	1,37	
Zorpetzearen mugaren ehunekoa	12,54	1,17	
Zorpetze-ahalmenaren ehunekoa	11,32	-0,2	
Diruzaintza-gerakina, guztira	11.294.258	8.294.049	-26
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.882.824	1.385.380	-26
Zor bizia	1.446.983	1.372.662	-5
Zor biziaren ehunekoa, diru-sarrera arrunten gainekoa	20	21	
Biztanle bakoitzeko zor bizia	160	154	-4
Finantza-zama / Diru-sarrera arruntak	1,22	1,37	
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia		18	

2011n, Udalak ehuneko 7 gutxiago gastatu du aurreko ekitaldian baino, eta diru-sarrerak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 21 txikiagoak izan ditu. Diru-sarreretan ia 1,88 milioiko beherakada hori gertatu da, funtsean, jaitsi egin direlako tasen kapitulua –ehuneko 44 gutxiago–, transferentzia arruntena –ehuneko 10 gutxiago– eta kapital-transferentziena –ehuneko 57 gutxiago–.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko 1eko hazkundera izan da; eta diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko 11 egin dute behera. Diru-sarrera arrunten beherakada, funtsean, tasen eta transferentzia arrunten ataletan esandako arrazoiarengatik gertatu da.

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioaren balio negatiboa handitu egin da, 2010ean 0,21 milioi izatetik 2011n 2,71 milioi izatera iragan baita; horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak ez direla izan iaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoa.

Aurrekontu-emaizta doituia 61 mila eurokoa da; aurreko urtean, berriz, 1 milioikoa izan zen. Batetik diru-sarrera arrunten beherakadak eta bestetik inbertsio-eragiketen finantziarioaren defizitak eragin dute murrizketa hori.

2011n, bai aurrezki gordinak bai aurrezki garbiak askoz txikiagoak dira 2010ekoak baino, ehuneko 90 baino gehiago egin baitute behera.

Zorpetze-maila ehuneko 1,37koa da, eta ehuneko 1,17ko muga du; horregatik, Udalak ez du zor berria hartzeko ahalmen ekonomikorik. Adierazle horiek nabarmen egin dute okerrera.

Diruzaintzako guztizko gerakina 8 milioikoa da, eta ehuneko 27 egin du behera 2010ekoarekin alderatuta. Gastu arruntetara bideratutakoa ehuneko 26 beheratu da, 2010ean 1,88 milioikoa izatetik 2011n 1,38 milioikoa izatera iragan baita.

Epe luzeko zorra 1,37 milioikoa da, eta ehuneko 5 egin du behera 2010ekoarekin alderatuta; zor hori –biztanle bakoitzeko 154 eurokoa dena, guztira– entitatearen diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 21 da. Bada, ehuneko hori zorpetze berria hartzea mugatzen duen ehuneko 75eko lege-mugaren azpitik dago.

Ondorioz, eta azken laburpen gisa, Berriozarko Udalak bere finantza-egoera gero eta gehiago hondatzen ari dela erakusten du; egoera horri, orain arte, konponbidea bilatu zaio azken urteotan udal barruti honetan abian jarri diren hirigintza-jarduera handietatik jasotako baliabideei esker.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak. Ildo horretan, Udalaren oroitidazkiak nabarmentzen du 2007tik 2011ra bitartean diru-sarrera arruntak ehuneko bi hazi direla eta gastu arruntak, berriz, ehuneko 21; azpimarratzen du, halaber, gastu arruntaren bolu-mena bateratuta dagoela, eta hurrengo urteetan handitu egingen dela, ekipamendu berriak (Haur Eskola, Kultur Etxea...) abian jartzen direnean. Ondorio gisa, oroitidazki horrek dio funtsezkoa dela zerbitzuak banaka aztertzea, tasa eta prezio publikoak zerbitzuen kostura hurbiltzen saiatzeko edo, behintzat, ahalegina egiteko bide horretan.

Bestalde, hirigintzako kudeaketari erreparatuta, indarra duen planeamendua ia buruturik dago, eta plan berria egiten ari da.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Oro har, 2010eko txostenean jasotako aholku nagusiak kontuan hartu dira; indarreko legediak ezarritako epeetan aurrekontuak onesteari dagokion aholkua eta hirigintzako udal planeamendu berria egiteari buruzkoa, berriz, ez dira bete.

V. UDALAREN 2011ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren azaltzen dira 2011ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak.

V.1. 2011ko AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Betetakoaren ehuneko	Ordainketak	Egiteko dauden ordainketak	Ordaintzeke dagoenaren ehuneko
1. Langile-gastuak	36.615.800	44.855	3.660.655	3.656.161	100	3.596.341	59.821	2
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	1.748.865	220.202	1.969.067	1.960.986	100	1.793.309	167.677	9
3. Gastu finantzarioak	6.800	7.000	13.800	13.223	96	13.223		0
4. Transferentzia arruntak	770.785	596	771.381	698.322	91	583.200	115.122	16
6. Inbertsio errealak		6.704.651	6.704.651	3.421.001	51	2.596.305	824.696	24
7. Kapital-transferentziak		150.000	150.000	32.161	21	28.815	3.346	10
8. Finantza-aktiboak		5.100	5.100	5.100	100	5.100		0
9. Finantza-pasiboak	211.400	822.100	1.033.500	74.321	7	74.321		0
Guztira	6.353.650	7.954.504	14.308.154	9.861.274	69	8.690.613	1.170.661	12

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoaren ehuneko	Kobrantsak	Kobratzeke dagoena	Kobratzeke dagoenaren ehuneko
1. Zuzeneko zergak	1.913.500		1.913.500	1.845.870	96	1.643.110	202.761	11
2. Zeharkako zergak	411.400		411.400	544.407	132	149.680	394.727	73
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	884.300	16.400	900.700	886.699	98	677.234	209.466	24
4. Transferentzia arruntak	2.963.350	8.135	2.971.485	2.826.082	95	2.635.065	191.016	7
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	181.100		181.100	286.876	158	286.429	447	0
6. Inbertsio errealak besterentzea								
7. Kapital transferentziak		1.246.250	1.246.250	684.241	55	605.132	79.109	12
8. Finantza-aktiboak		6.683.719	6.683.719					
9. Finantza-pasiboak								
Guztira	6.353.650	7.954.504	14.308.154	7.074.176	49	5.996.650	1.077.526	15

V.2. 2011ko AURREKONTU-EMAITZA

(Eurotan)		
Kontzeptua	2010	2011
+ Aitortutako eskubideak	8.953.915	7.074.176
– Aitortutako betebeharrak	9.233.885	9.861.274
= Aurrekontu-emaitza	-279.970	-2.787.098
Doitzeak		
– Finantzaketaren desbideratze positiboak	51.430	500.000
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzaturiko gastuak	0	0
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	1.449.3760	3.347.987
= Aurrekontu-emaitza doituak	1.117.976	60.889

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2011ko ABENDUAREN 31n

(Eurotan)		
Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2011ko ekitaldia
+ Kobratzeke dauden eskubideak	1.519.255	1.271.969
+ Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.269.088	1.081.398
+ Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	924.788	789.929
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	59.951	173.252
+ Ordainketen itzulketak	3.278	81
– Bilketa zaileko eskubideak	680.678	700.882
– Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	57.173	71.810
- Ordaintzeke dauden betebeharrak	918.101	1.345.984
+ Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	596.347	1.170.661
+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	54.878	30.239
+ Diru-sarreraren itzulketak	80.472	4.253
– Aplikatzeke dauden gastuak	0	70.831
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	186.403	211.659
+ Diruzaintzako funts likidoak	10.693.104	8.368.064
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	11.294.258	8.294.049
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	51.430	500.000
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	9.360.005	6.408.669
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.882.824	1.385.380

V.4. EGOERA-BALANTZEA 2011ko ABENDUAREN 31n

AKTIBOA

(Eurotan)

Deskribapena	2011	2010
A Ibilgetua	27.522.260	26.383.203
1 Ibilgetu materiala	27.306.575	26.240.321
2 Ibilgetu ez-materiala	210.281	140.779
3 Erabilera orokorrera bideratutako azpiegitura eta ondasunak		
4 Herri-ondasunak		
5 Finantza-ibilgetua	5.404	2.104
C Zirkulatuzailea	10.968.662	12.299.022
8 Zordunak	1.343.779	1.576.428
9 Finantza-kontuak	8.440.695	10.722.594
10 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (galera)	1.184.188	
Aktiboa, guztira	38.490.921	38.682.226

PASIBOA

(Eurotan)

Deskribapena	2011	2010
A Funts berekiak	35.520.390	36.185.647
1 Ondarea eta erreserbak	23.316.837	23.334.880
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0	1.334.455
3 Kapitaleko diru-laguntzak	12.203.553	11.519.312
C Epe luzeko hartzekodunak	1.372.662	1.446.983
4 Prestamenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	1.372.662	1.446.983
D Epe laburreko hartzekodunak	1.597.869	1.049.595
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.491.136	992.422
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	106.733	57.173
Pasiboa, guztira	38.490.922	38.682.226

V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA 2011n

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
3 Hasierako izakinak			3 Bukaerako erosketak		
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura			39 Izakinen balio-galtzeen hornidura		
60 Erosketak			70 Salmentak	558.229	672.760
61 Langileen gastuak	3.673.584	3.632.077	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	563.914	1.087.214
62 Gastu finantzarioak	15.111	13.220	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.854.208	1.639.933
63 Zergak			73 Errentaren gaineko zerga arruntak	441.955	430.766
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	1.970.103	1.913.987			
65 Gizarte-prestazioak			75 Ustiapenerako diru-laguntzak		
66 Ustiapenerako diru-laguntzak			76 Transferentzia arruntak	2.826.082	3.132.563
67 Transferentzia arruntak	698.322	715.584	77 Kapitalaren gaineko zergak	94.114	140.359
68 Kapital-transferentziak	32.161	115.365	78 Bestelako diru-sarrerak	51.432	367.740
69 Amortizaziorako eta horniduretarako zuzkidurak	1.636.629	1.522.782	79 Beren helbururako aplikaturiko hornidurak	680.678	1.914.220
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)		1.472.541	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	955.298	
Guztira	8.025.911	9.385.556	Guztira	8.025.911	9.385.556

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	955.298		80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)		1.472.541
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)			82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)		209.127
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)			83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)		
84 Ixkitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	228.890	350.213	84 Ixkitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)		
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)		1.331.455	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	1.184.188	
Guztira	1.184.188	1.681.668	Guztira	1.184.188	1.681.668

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA AHOLKUAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- Udalak 2011ko urtarrilaren 13ko Osoko Bilkuran eman zion hasierako onespena 2011ko aurrekontuari. Behin betiko onespena, berriz, 2011ko martxoaren 11n eman zion.

- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2011ko fakturarik, 2012ko aurrekontuari egotzi zaionik.

- Udalak 2011n hornitzaileei ordaintzeko erabili duen epeari buruzko azterketa eginik, ondorioztatzen da ezen, aztertutako laginari erreparatuta, arau indardunetan ezarritakoa betetzen ari dela, oro har. Ez da berandutza-interesik ordaindu hornitzaileei egindako ordainketengatik.

- Udalaren epe luzeko zorrak osagai hauek ditu: Nafarroako Gobernuak emandako interesik gabeko aurrerakina, 0,48 milioikoa, eta finantza-entitate batekin egindako kreditu-kontua, abenduaren 31n 0,89 milioiko saldua zuena ordaintzeko. Esan beharra dago 2012ko ekitaldian bankuarekiko zor hori osorik kitatu dela, epea bete baino lehenago.

- Gorabehera garrantzitsuak. Jasotako informazioaren arabera, auzi hauek azpimarratu behar ditugu:

a) Udaletxe berria eraikitzeko kontratua daukan enpresak 2010eko ekaineko Osoko Bilkuran hartutako erabaki baten aurka jarritako demanda. Guztira 1,22 milioi erreklamatu ditu. Zenbateko horrek osagai hauek biltzen ditu: Udalak obren atzerapenagatik ezarritako zigorraren itzulketak, eta obren amaierako balorazioan, jasandako gastu orokorretan eta ziurtagirien ordainketa dela-eta kalkulaturako berandutza-interesetan dauden aldeak. Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak, 2013ko otsailean, errekurtsioa baietsi eta Udalaren erabakia deuseztatu du, eta agindu du jarduketetan atzera egin dadila, obraren neurrak orokorra egin zen unera arte; epaiak ez du ezer erabaki demandaren funts ekonomikoari buruz.

b) Udaletxe berriko obretan ari den arkitektura enpresa batek 0,18 milioiko ordainsari gehigarriak eskatzeko jarritako demanda. Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak demanda hori ezetsi zuen 2012ko uztailean.

- Udalak aurkeztu duen oroitidazkian zerbitzuen kostuaren azterketa egiten da, eta tasa, prezio publiko eta diru-laguntzen bitartez kostu hori zenbateraino estali den azaltzen da.

Udalaren aurrekontu orokor eta bakarra indarrean dagoen legediak ezartzen duen epearen barruan onartzea gomendatzen dugu.

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 3,66 milioi eurokoa da; hau da, 2011n sortutako gastu guztien ehuneko 37 eta gastu arrunten ehuneko 58.

2010eko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko 1 handitu da, honako xehetasunen arabera:

Langileria-gastuak	Aitortutako betebeharrak		Aldearen ehuneko
	2010	2011	
Goi-karguak	88.598	71.476	-19
Funtzionarioak	1.496.141	1.497.689	0
Lan-kontratu finkoa	442.798	470.848	6
Aldi baterako lan-kontratua	565.988	542.721	-4
Gizarte zamak	1.015.533	1.073.427	6
1. kapituluak, guztira	3.609.058	3.656.161	1

Udalak 2011ko urtarrilaren 13ko Osoko Bilkuran onartu zuen 2011ko plantilla organikoa. Bertan 99 lanpostu daude jasota, eta horietatik 51 lanpostu, ehuneko 52, bete gabe daude. Hona zehaztasuna:

	Lanpostu-kopurua	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Funtzionarioak	53	36	15	15
Lan-kontratu finkoa	46	10	36	36

2011ko abenduaren 31n, 107 lagunek lan egiten dute Udalean eta haren erakunde autonomoetan, eta era honetara banatuta daude:

Langileak	Kopurua Udalean
Udalbatzarkideak	2
Funtzionarioak	34
Lan-kontratu finkoa	10
Aldi baterako lan-kontratua	61
Guztira	107

Langileen kopurua ia ehuneko 4 jaitsi da 2010eko ekitaldiko kopuruarekin (111 langile) alderatuta. Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Udalbatzarkideak	2
Zerbitzu orokorrak	5
Udaltzaingoa	15
Haur Eskola	29
Ikastetxea	2
Laira	2
Ekonomia-gaiak	4
Garbitasuna	5
Hirigintza	3
Lorategiak	5
Obrak	12
Musika Eskola	18
Euskara	1
Kultura	2
Gazteria	1
Kirola	1
Guztira	107

Azpirarratu behar dugu Udaltzaingoko, Haur Eskolako eta Musika Eskolako langileak direla Udaleko langile guztien ehuneko 58.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, honako ondorioak atera ditugu: oro har, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daude; ordaindu diren lansariak betetako lanposturako erabakitakoak dira; ordainsari horiek 2011n izoztu dira, eta egindako atxikipek zuzenak dira.

Nabarmendu beharra dago Udalaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta administrazio-kontratudunen 2011ko lan-baldintzei buruzko erabakian –urte horretako abuztuan onetsi zen– osagarri hauek ezarri zirela:

- Konpentsazioko osagarria, irents daitekeena, 68/2009 Foru Dekretuak indarra hartu baino lehenagotik gradua eta familia-laguntza jaso dituzten administrazio-kontratudunentzat.

- Ehuneko 2ko berariazko osagarria udaltzain laguntzaileentzat.
- Ehuneko 2ko berariazko osagarria Haur Eskolari atxikitako langileentzat.

Nafarroako Gobernuak hala eskaturik, 2012ko otsailean Osoko Bilkurak deuseztatu egin zituen konpentsazioko osagarria eta Haur Eskolakoa, "negoziazio kolektiboan soilik bidera daitekeen gaia" izateagatik. Udaltzain laguntzaileen osagarriari eutsi zaio, lan-baldintzei buruzko aurreko erabakiaren testuan zegoen akats bat zuzendu delako haren bitartez.

Indarrean den araudiaren testuinguruan, aurrekontu-zuzkidura duten bete gabeko lanpostu guztiak enplegu-eskaintza publikoan sartzera gomendatzen dugu.

VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 1,9 milioi euro egin dute 2011ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 20 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 31 egiten dute. 2010. urtearen aldean, ehuneko 1 egin dute gora.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Kontratu mota	Adjudikatzeko prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa
Hilerriko kolunbarioen hornidura	Hornidura	Negoziatua, Europan publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	12.000	3	11.925
Mendialdea IPko garbiketara	Laguntza	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe /eskaintzako preziorik onena	106.780	3	98.751

Espeditente horiei eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren bitartez egiaztatu da behar diren fakturekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia zentzuz errespetatu dela.

Bilkuretara joateagatiko kalte-ordainei dagokienez, adierazi beharra dago Udalak kontrolatu egiten duela zinegotziak agertzen diren ala ez udal organoetara (Osoko Bilkura, Gobernu Batzordea eta informazio batzordeak). Bilera bakoitzeko 100 euro jasotzen dituzte, eta urtean, gehienez ere, 12 bilerari dagokien diru kopurua jaso dezakete organo bakoitzeko.

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Horrelako gastuek 0,73 milioi egin dute, eta 2011n sortutako gastu guztien ehuneko 7,4 dira.

2010arekin alderatuta, gastu horiek oro har ehuneko 12 egin dute behera, funtsean kapital-transferentziek behera egin dutelako, eta zehatzago, eraikinak zaharberritzeko diru-laguntzen beherakadaren ondorioz, 2010ean munta handikoak izan baitziren.

	2010ean aitortutako betebeharrak	2011n aitortutako betebeharrak	Aldea, portzenta-jea 2010/2011
Foru Komunitateko Administrazio Orokorrari	14.230	14.259	0
Mankomunitateei	353.405	342.895	-3
Familiei eta bestelako erakundeei	348.499	341.167	-2
4. Transferentzia arruntak	716.134	698.321	-2
Familiei eta bestelako erakundeei	115.365	32.161	-72
7. Kapital-transferentziak	115.365	32.161	-72

Honakoak dira 2011n emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Onuraduna	Diru-kopurua
Eskualdeko garraioa	158.534
Gizarte zerbitzuak	184.361
BKE Berriozar Kirol Elkartea	40.029
Mendialdea Kirol Elkartea	35.992
Auzokidea Laguntzeko Elkartea	30.000

Udalak badu diru-laguntzak emateko ordenantza orokorra, 2011ko martxoan behin betiko onetsia. Etxebizitzak zaharberritzeko diru-laguntzak ordenantza horretatik kanpo daude, berariazko ordenantza batean arautu baitira.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu horien kudeaketa egokia izan dela, oro har.

VI.5. INBERTSIOAK

2011. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (6,7 milioi) ehuneko 51 bete da, eta 3,42 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 35.

Kapitulua betetze-maila apala izan da, batez ere, Haur Eskolako obretarako, Euskal Herria plazako urbanizaziorako eta Kultur Etxeko batzar aretorako jarritako diru kopuruaren ondorioz; izan ere, aurreikusita zegoen baino erritmo motelagoan bete da obra horien aurrekontua. Bestalde, azpimarratu behar da, egungo egoera ekonomikoa dela-eta, aurrekontuan jasotako inbertsio batzuk azkenean ez direla gauzatu (bidegorria, Toki Agenda 21eko proiektuak) edo atzeratu egin direla.

2010arekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 24 –hau da, 0,65 milioi– egin dute gora.

Honakoak dira 2011n egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Diru-kopurua
Euskal Herria plazako urbanizazioa	384.847
Haur Eskola	452.969
Kirol instalazioak	352.969
Zortziko kaleko urbanizazioa	317.725
7ko futboleko zelaia eraikitzea	267.898
Kirol instalazioetako inbertsioen erregularizazioa	182.893
Obra eta lorategietako makineria	99.811
Rokodromoa eraikitzea	81.083

2011n adjudikatutako honako espedienteak aztertu ditugu (zenbatekoak BEZik gabe):

Deskribapena	Kontratu mota	Adjudikatzeko prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa, BEZik gabe	Merkatzearen %
7ko futboleko zelaia	Obra	Irekia, Europako mugatik behera / eskaintzarik onena	306.780	11	259.177	16
Kultur Etxea eta Musika Eskola handitzea	Obra	Irekia, Europako mugatik behera / eskaintzarik onena	847.458	10	609.915	28
0-3 urteko haur eskola	Obra	Irekia, Europako mugatik behera / eskaintzarik onena	1.952.321	20	1.308.055	33

Aipatzekoa da 2012an amaitu direla Kultur Etxea eta Haur Eskola handitzeko lanak.

Eginiko azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia –alderdi nagusietan–, bai kontratazio-espedituek izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean, eta kontabilizaturiko gastuak arrazoizkoak direla.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2011ko ekitaldian aitortutako eskubideak 7,07 milioioak izan dira; ehuneko 90 eragiketa arruntengatiko diru-sarrereri dagozkie eta ehuneko 10, berriz, kapital-eragiketei.

Eragiketa arruntan artean tributu bidezko diru-sarrerak (3,28 milioi euro) eta transferentzia arruntak (2,83 milioi euro) nabarmentzen dira.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 49koa izan da. Maila apala izan da, funtsean, 6,6 milioiko diruzaintza-gerakina behin betiko aurreikuspenetan sartuta dagoelako; hura kontuan hartu gabe, berriz, gauzatze-maila ehuneko 93koa da.

Udalak ez du nabarmentzeko moduko diru-sarrerarik jaso 2011ko hirigintza-eragiketen ondorioz.

2010. urtearen aldean, aitorturiko betebeharrak ehuneko 21 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak, 2010	Aitortutako eskubide garbiak, 2011	2010/2011 aldea
1 Zuzeneko zergak	1.791.732	1.845.870	3
2 Zeharkako zergak	419.326	544.407	30
3 Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	1.592.549	886.699	-44
4 Transferentzia arruntak	3.132.563	2.826.082	-9
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	223.300	286.876	28
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	7.159.471	6.389.935	-11
6 Inbertsioen besterentzea	209.127	0	-100
7 Kapital-transferentziak	1.585.317	684.241	-57
Kapitaleko diru-sarrerak (6 eta 7)	1.794.444	684.241	-62
8 Finantza-aktiboak	0	0	0
9 Finantza-pasiboak	0	0	0
Finantza-eragiketen diru-sarrerak (8 eta 9)	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira	8.953.915	7.074.176	-21

Udal zergen gehikuntza eta tasen eta kapital-transferentzien murrizketa nabarmendu behar ditugu.

Tasa, prezio eta bestelako diru-sarrereri dagokienez, bestelako diru-sarreraren azken atal horretan beherakada gertatu da 2011n ez delako munta handiko isun edo zehapenik izan; 2010ean, berriz, kontrara gertatu zen.

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak (2010)	Aitortutako eskubideak (2011)	Aldea, portzentajea 2011/2010
Lurraren kontribuzioa	1.064.125	1.154.935	9
Ibilgailuak	430.766	441.955	3
Lurren balioaren igoera	140.359	94.114	-33
JEZa	156.481	154.866	-1
EIOZa	419.326	544.407	30
Guztira	2.211.057	2.390.277	8

Antzematen diren aldaketa nagusiak dira lursailen balioari dagokiona, etxebizitzaren salerosketaren moteltze nabarmenaren ondorioz balio hori ehuneko 33 jaitsi baita 2011ko ekitaldian, eta EIOZari dagokiona, 2011ko ekitaldian ehuneko 30 egin baitu gora, Artiberri II. sektoreko hirigintza-garapen berria dela medio.

Balorzio-ponentziaren azken eguneratzea 2011. urtean egin zen.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte er-tain/altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,2076	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balioaren igoera		
Gaurkotzearen koefizientea	3,1etik 3,3ra	2tik 3,8ra
Karga-tasa	8	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazio eta obrak	5	2 - 5

Tasa horiek izoztu egin dira 2010ekoan aldean, hiri-lurraren kontribuzioarena eta lurren balioaren igoerarena izan ezik, horiek ehuneko 2,2 egin baitute gora.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean eginiko azterketaren bitartez, egokiro izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

VI.7. HIRIGINTZA

Berriozarko Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra ize-neko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira: arkitekto bat, arkitekto tekniko bat eta administrari ofizial bat.

Gainera, Udalak badu kanpoko aholkularitza juridikoa hirigintzaren arloan, abokatu batek ematen diona. Horrek 9.801 euroko gastua ekarri du 2011n.

1991ko maiatzaren 8an onetsitako Arau Subsidiarioak dira Berriozarko planeamendu-tresna. 20 urte geroago, ia erabat beteta daude arau horietan aurreikusitako hirigintza-helburuak.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak (LFOTU) hiru urteko epea ezarri zuen, 2006ko apirilera bitarte, indarrean diren planeamenduak homo-logatzeko eta egokitzeko. Foru lege horretako estipulazioak betetze aldera, Udalak 2005eko uztailean esleitu zituen Udal Plan Orokorra idazteko laguntza teknikoko lanak.

Udal Plan Orokorrerako egin zen lehenbiziko dokumentua, Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredua (LOEE), 2006ko otsailean onetsi zen. Plan berria idazteko lanak 2007an adjudikatu ziren, eta bukatu gabe daude txosten hau egiteko garaian.

Ganbera honek nabarmendu nahi du luze jotzen ari dela hirigintza-planeamendu berria taxutu eta onesteko prozesua, nahiz eta tresna hori funtsezkoa izan udal plangintza eta kudeaketa egokietarako.

Udalak badu Lurzoruaren Udal Ondarearen inbentario eta erregistro espezifiko bat, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak agindu bezala; haren osaera zehatz-mehatz azaltzen da Udalaren oroitidazkian. Halaber, Udalak hirigintza-hitzarmenen erregistroa kudeatzen du.

Udal Plan berria idazteko prozesua behingoz bukatzea gomendatzen dugu.

José Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta egin da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2013ko uztailearen 1ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Ikusita Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio-txostena, Atarrabiako Udalari buruzkoa, 2011ko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukiari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (20. or.).
- II.** Helburua (22. or.).
- III.** Norainokoa eta mugak (22. or.).
- IV.** Iritzia (23. or.).
 - IV.1. Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra (23. or.).
 - IV.2. Legezkotasuna (23. or.).
 - IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2011ko abenduaren 31n (23. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (25. or.).
- V.** Udalaren 2011ko kontu orokorraren laburpena (26. or.).
 - V.1. 2011ko aurrekontu-betetzearen egoera-orria (26. or.).
 - V.2. 2011ko aurrekontu-emaitza (27. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2011ko abenduaren 31n (27. or.).
 - V.4. 2011ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (28. or.).
 - V.5. Galera eta irabazien kontua 2011n (29. or.).
- VI.** Iruzkinak, ondorioak eta aholkuak (30. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (30. or.).
 - VI.2. Langileak (31. or.).
 - VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (32. or.).
 - VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (32. or.).
 - VI.5. Inbertsioak (33. or.).
 - VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (34. or.).
 - VI.7. Hirigintza (35. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bere jarduera-programari jarraituz, Atarrabiako Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Atarrabiako udalerriak 1,1 km²-ko azalera du, eta 2011ko urtarrilaren 1ean 10.487 biztanle ditu.

Udalak ez du ez erakunde autonomorik ez toki-enpresa publikorik.

2011ko ekitaldia ixtean, Udalaren funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak (2011)	Aitortutako eskubideak (2011)	Langileak, 2011-12-31n
Udala	8.205.390	8.389.608	105

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketari dagozkionak. Mankomunitate horretako kide izatearen ondoriozko gastuak 176.890 eurokoak izan dira guztira 2011n.

2010eko irailean, Atarrabiako eta Burlatako udalek Hilarión Eslava Musika Eskolako Partzuergoaren estatutuak onetsi zituzten. Atarrabiako Udalak 2011n guztira 108.983 euro jarri ditu partzuergo hori finantzatzeko.

Gainera, parte hartzen du Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan (EEZB).

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea/Partzuergoa	Zerbitzu-kontratuak	Errentamendua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X			
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	X			
0-3 urteko haur-eskolak	X			
Musika Eskola		X		
Hirigintza			X	
Lorategiak	X			
Hiri-hondakinak		-X		
Uraren ziklo integrala		X		
Garraio publikoa		X		
Liburutegia-ludoteka	X			
Kaleen eta bideen mantentzea	X			
Kirolak (instalazioen kudeaketa)				X
Kirol-jardueren kudeaketa	X		X	
Udal kiroldegia			X	
Babestutako enplegu soziala	X			
Diru-bilketa exekutiboa			X	
Familien arretarako zentroa	X			
Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa	X			

Toki-entitateari 2011ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
 - Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
 - Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.
 - 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langile-riaren Estatutua.
 - Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
 - Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki-entitatei buruz ezarritako berezitasunekin.
 - Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.
-
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
 - Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
 - Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.
 - Kontabilitatearen eta aurrekontuen alorrean, Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira araubide juridikoa ezartzen dutenak.

- Atarrabiako Udalaren 2011ko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gainerako barne-arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa eta mugak. Laugarrenean, 2011ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Atarrabiako Udaleko langileei, lan hau egiteko emandako laguntza-rengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Atarrabiako Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontularitza-printzipio eta -irizpideei jarraituz betiere.

- Zenbateraino bete duten Udalak 2011n izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia.
- Udalaren finantza-egoera 2011ko abenduaren 31n.
- Ganbera honek 2010eko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Atarrabiako Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren kontua: aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, laginen teknika edo kontu-sail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, Udalari dagokionez, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nabarmenenak.

Lan honek muga bat izan du, hala ere: ezin izan dugu iritzirik eman udal honek 2011ko ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak zenbateraino bete dituen adieraziz, Nafarroako Gobernuak oraindik ere printzipio horiei Foru Komunitate honetako udaletan aplikatzeko araudi berezia eman ez duelako.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren irismenaren arabera, Atarrabiako Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, eta kontuaren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. UDALAREN 2011ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da eta ez da eguneratu, ez eta kontularitzarekin bateratu; beraz, ezin izan da egoera-balantzearen "libilgetua" atalaren arrazoikotasunaren ebidentzia lortu. Atal hori 34,33 milioikoa zen 2011ko abenduaren 31n.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak, aplikatu daitezkeen finantzari buruzko informazio publikoaren arauzko esparruarekin eta, bereziki, bertan bildutako kontularitzako printzipioekin eta irizpideekin bat eginez.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2011ko ekitaldian Udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezketasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2011ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontuak 9,71 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; gastuen egoerari buruzko kontusail bat 2009ko ekitaldiko diruzaintza-gerakin negatiboa konpentsatzeko, lurrak salduz finantzatzeko litzatekeena.

Hasierako aurreikuspenak, aurrekontu-aldaketan bitartez, ehuneko 2,5 handitu dira, hots, 0,24 milioi gehitu dira, inbertsioak egiteko eta finantzatzeko helburu nagusiarekin.

Aitortutako betebeharrak 8,21 milioi eurokoak dira eta ehuneko 82ko betetze-maila dute. Nabarmendu behar dugu kapital-transferentzien kapituluak ehuneko 104ko betetze-maila duela, epai bat betetzeko egindako gastua egotzi zaiolako.

Aitortutako eskubideek 8,39 milioi egiten dute, ehuneko 84ko betetze-mailarekin; ehuneko hori azal daiteke, funtsean, diru-sarrera arruntetan izandako betetze-mailarengatik –ehuneko 99koa–. Inbertsio errealeen besterentzeen kapitulua, berriz –1,33 milioiko aurreikuspenekin– bete gabe gelditu da erabat, eta horregatik ezin izan dute finantzatu 2009ko diruzaintza-gerakin negatiboa.

Gastuen izaerari begiratuz gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 64 eta ehuneko 35 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 90 dira; diru-sarrera horien ehuneko 50 jasotako transferentzietatik datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	55	Tributu bidezko diru-sarrerak	43
Bestelako gastu arruntak	31	Transferentziak	55
Inbertsioak	8	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	2
Finantza-zama	6	Zorpetzea	0
	100		100

Hona Udalaren 2011rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2010etik izan duen bilakae-rari buruzko datu ekonomikoak:

	2010	2011	Aldea, portzentajea 2011/2010
Aitortutako betebeharrak, guztira	10.334.766	8.205.390	-21
Likidatutako eskubideak, guztira	10.503.319	8.389.608	-20
Gastu-betetzearen ehunekoa	94	82	
Diru-sarreraren betetzearen ehunekoa	66	84	
Ordainketen ehunekoa	81	93	
Kobrانتzen ehunekoa	91	93	
Gastu arruntak (1etik 4ra)	7.220.062	7.062.140	-2
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	7.160.803	7.000.181	-2
Inbertsioen gastuak (6 eta 7)	2.703.764	705.232	-74
Finantza-eragiketen gastuak (8 eta 9)	410.920	438.018	7
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	7.744.565	7.826.341	1
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	3.343.547	3.606.093	8
Kapitaleko diru-sarrerak (6 eta 7)	2.758.754	563.267	-80
Diru-laguntzen menpekotasunaren ehunekoa	67	50	
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	46	51	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	579.494	58.969	-90
Aurrekontu-emaizta doitu	-280.167	184.218	166
Aurrezki gordina	583.762	826.160	42
Finantza-zama (3 eta 9)	468.379	499.977	7
Aurrezki garbia	115.383	326.184	183
Zorpetze-mailaren ehunekoa	6,05	6,39	
Zorpetzearen mugaren ehunekoa	7,54	10,56	
Zorpetze-ahalmenaren ehunekoa	1,49	4,17	
Diruzaintza-gerakina, guztira	-1.077.246	-1.001.482	7
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-1.525.987	-1.436.087	6
Zor bizia	3.710.760	3.272.741	-12
Zor biziaren ehunekoa, diru-sarrera arruntaren gainekoa	49	42	
Biztanle bakoitzeko zor bizia	351	312	-11
Finantza-zama / Diru-sarrera arruntak (ehunekoa)	6	6	0
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	6	4	

2011n, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 21 gutxiago gastatu du, eta aurreko ekitaldian baino ehuneko 20 gutxiagoko diru-sarrerak izan ditu, hau da, ia 2,1 milioi gutxiago jaso ditu. Inbertsioen eta horiek finantzatzeko iturrien murrizketak eragin du beherakada hori.

Gastu arruntetan ehuneko 2ko urritzea izan da; eta diru-sarrera arruntetan, aldiz, ehuneko 1eko hazkundea. Gastu arruntetan izandako murrizketa, funtsean, ondasun arrunt eta zerbitzuen arloko gastuak apaltzearen ondorio izan da.

Diru-sarrera arruntetan ehuneko bateko igoera izan da, tributu bidezko diru-sarreraren ehuneko zortziko gorakadaren eraginez, batik bat.

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioak ehuneko 90 egin du behera; 58.969 eurokoa izan da 2011n. Jaitsiera horrek erakusten du diru-sarrera ez-finantzarioak izaera horretako gastuen finantzaketaren muga daudela.

Aurrekontu-emaizta doitu 0,18 milioiko zenbateko positibora iritsi da; aurreko urtean 0,28 milioiko emaitza negatiboa izan zen.

2011n, bai aurrezki gordinak bai aurrezki garbiak gora egin dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ezarri diren austeritate neurriak tarteko.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 6,39koa da, nahiz eta bere muga ehuneko 10,56 izan; ondorioz, zorpetze berria bereganatzeko ehuneko 4,17ko ahalmen ekonomikoa du. Ahalmen hori handitu egin da 2010ekoaren aldean, orduan 1,49ra iritsi baitzen.

Diruzaintzako guztizko gerakina 2011n negatiboa da, milioi batekoa, eta 2010ean ere negatiboa izan zen, 1,12 milioikoa. Gastu orokorretarako gerakina ehuneko sei murriztu da, baina 1,44 milioiko zenbateko negatibo nabarmena izaten jarraitzen du; hona hemen nolako bilakaera izan duen magnitude horrek azken bost urteetan:

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2007	2008	2009	2010	2011
Zenbatekoa	624.960	-428.043	-1.326.260	-1.525.987	-1.436.087

Beraz, 1,4 milioi inguruko diruzaintza-defizita ikusten da azken hiru urteetan. Defizit horren zati handi bat, ordea, itxitako ekitaldietako zorrak sortu du, kultur etxe berriaren eraikuntzaren ondoriozko zorra, hain zuzen ere, kultur etxe zaharreko lurra salduz finantzatu nahi dena.

Epe luzeko zorra 3,27 milioikoa da, eta ehuneko 12 egin du behera 2010ekoarekin alderatuta; zor hori –biztanle bakoitzeko 312 eurokoa dena, guztira– entitatearen diru-sarrera arrunten guztizkoaren ehuneko 42 da. Bada, ehuneko hori zorpetze berria hartzea mugatzen duen ehuneko 75eko lege-mugaren azpitik dago.

Horrenbestez, eta amaierako laburpen gisa, Atarrabiako Udalak, inbertsioen arloko gastuen euste garrantzitsua gorabehera, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren balio negatibo nabarmenak izaten jarraitu du azken hiru ekitaldietan. Gainerako magnitudeetan, aldiz, hobera egiten jarraitu du, jada 2010ean agertu zuen ildo beretik, bere gastu arruntei eustearen eta tributu bidezko diru-sarrerak handitzearen emaitza gisa.

Horregatik, epe ertainera bideragarritasun ekonomikoa bermatze aldera, Udalak jarraitu behar du hainbat neurri aplikatzen gastu arruntei gehiago eusteko eta ohiko baliabideak sortzeko gaitasuna handitzeko helburuarekin; edonola ere, ez da ahaztu behar kudeaketa hobetzeko neurriak hartu behar direla, hala nola tasak eta prezioak zerbitzuaren kostura egokitzea, inbertsioen lehenestea, diru-laguntzen politika aztertzea, zenbait zerbitzuren tamaina aztertzea eta ematen dituen eta derrigorrezkoak ez diren zerbitzuek beren burua finantzatzea. Neurri horien artean, indarra duen legedian diruzaintza-gerakin negatiboak kitatzeko ezarritakoak ere hartu dira.

Bestalde, hirigintzako kudeaketari erreparatuta, indarra duen planeamendua ia buruturik dago, eta plan berria egiten ari da.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrek bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honen 2010eko ekitaldiko txostenari dagokionez, garrantzizko aholku hauek oraindik gauzatzeke daude, txosten honen IV. atalean berresten den bezala:

- *Udal inbentarioa gaurkotzea.*
- *Udalaren hirigintzako plan berria behin betiko onestea.*
- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokorra onestea.*
- *Finantzen egoera-orriak osatzen dituen beste egoera-orri bat balitz bezala osatzea oroitidazkia, eta garrantzizko informazio guztia sartzea.*

V. UDALAREN 2011ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren azaltzen dira 2011ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak.

V.1. 2011ko AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordaintzeke	Ordaintzeke dagoenaren ehunekoa
1. Langile-gastuak	4.580.016	-6.000	4.574.016	4.481.340	98	4.410.325	71.015	2
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	2.182.484	1.669	2.184.153	1.972.135	90	1.651.700	320.435	16
3. Gastu finantzarioak	67.131	-3.512	63.620	61.958	97	61.958	0	0
4. Transferentzia arruntak	521.520	39.592	561.111	546.706	97	475.810	70.896	13
6. Inbertsio errealak	502.710	205.910	708.621	606.475	86	515.122	91.353	15
7. Kapital-transferentziak	95.000	0	95.000	98.756	104	98.756	0	0
8. Finantza-aktiboak	1.326.260	0	1.326.260	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	434.507	3.512	438.018	438.018	100	438.018	0	0
Guztira	9.709.627	241.171	9.950.798	8.205.390	82	7.651.691	553.699	7

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoaren ehunekoa	Kobrantzak	Kobratzeke dagoena	Kobratzeke dagoenaren ehunekoa
1. Zuzeneko zergak	2.418.040	0	2.418.040	2.442.820	101	2.270.439	172.380	7
2. Zeharkako zergak	250.000	0	250.000	238.939	96	234.381	4.558	2
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	882.371	32.327	914.698	924.334	101	853.865	70.469	8
4. Transferentzia arruntak	4.217.239	2.933	4.220.173	4.086.273	97	3.993.099	93.174	2
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	133.900	0	133.900	133.975	100	11.323	122.652	92
6. Inbertsio errealak besterentzea	1.333.878	0	1.333.878	0	0	0	0	0
7. Kapital transferentziak	474.199	136.916	611.115	563.267	92	437.471	125.796	22
8. Finantza-aktiboak	0	68.995	68.998	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	9.709.627	241.171	9.950.798	8.389.608	84	7.800.577	589.031	7

V.2. 2011ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2010	2011
+ Aitortutako eskubideak	10.503.319	8.689.608
– Aitortutako betebeharrak	10.334.746	8.205.390
= Aurrekontu-emaiza	168.574	184.218
Doitzeak		
– Finantzaketaren desbideratze positiboak	448.741	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzaturiko gastuak	0	0
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	0	0
= Aurrekontu-emaiza doitua	-280.167	184.218

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2011ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2010	2011
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.438.507	736.298
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	950.549	589.031
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	998.962	1.043.214
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	362.971	68.534
(+) Ordainketen itzulketa	1.377	2.793
(–) Nekez kobratzeko eskubideak	859.222	932.170
(–) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	16.131	35.103
(–) Ordaintzeko dauden betebeharrak	3.024.139	2.052.608
(+) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.964.515	553.699
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	677.536	1.243.219
(+) Diru-sarreraren itzulketak	5.460	0
(–) Aplikatzeko dauden gastuak	68	68
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	376.695	255.757
(+) Diruzaintzako funts likidoak	508.386	314.827
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	0	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	-1.077.246	-1.001.482
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	448.741	434.604
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-1.525.987	-1.436.087

V.4. 2011ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA

Deskribapena	2011	2010
A Ibilgetua	34.330.322	33.723.847
1 Ibilgetu materiala	26.090.567	25.615.455
2 Ibilgetu ez-materiala	1.355.111	1.355.111
3 Erabilera orokorrera bideratutako azpiegitura eta ondasunak	6.881.599	6.750.236
4 Herri-ondasunak	1.578	1.578
5 Finantza-ibilgetua	1.468	1.468
C Zirkulatailea	2.020.269	2.824.115
8 Zordunak	1.703.572	2.013.859
9 Finantza-kontuak	316.697	810.256
Aktiboa, guztira	36.350.591	36.547.962

PASIBOA

Deskribapena	2011	2010
A Funts berekiak	30.990.071	29.796.865
1 Ondarea eta erreserbak	15.299.865	14.182.615
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	629.940	1.117.250
3 Kapitaleko diru-laguntzak	15.060.266	14.497.000
C Epe luzeko hartzekodunak	3.272.741	3.710.760
4 Prestamenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	3.272.741	3.710.760
D Epe laburreko hartzekodunak	2.087.779	3.040.337
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.052.675	3.024.207
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	35.103	16.131
Pasiboa, guztira	36.350.591	36.547.962

V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA 2011n

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	452.857	453.172
61 Langileen gastuak	4.482.435	4.567.716	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	510.888	446.729
62 Gastu finantzarioak	61.958	59.259	72 Produksioari eta inportazioari lotutako zergak	1.961.730	1.791.162
63 Zergak	0	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	481.033	477.557
64 Kanpoko lan, hornikuntza eta zerbitzuak	1.971.041	2.217.372			
65 Gizarte-prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	4.086.273	4.271.987
67 Transferentzia arruntak	546.706	465.715	77 Kapitalaren gaineko zergak	238.995	218.700
68 Kapital-transferentziak	98.757	0	78 Bestelako diru-sarrerak	94.564	701.366
69 Amortizaziorako eta horniduratarako zuzkidurak	0	0	79 Beren helbururako aplikaturiko hornidurak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	665.445	1.140.611	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
Guztira	7.826.341	8.360.673	Guztira	7.826.341	8.360.673

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	665.445	1.140.611
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	691	0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	34.815	19.959	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	629.940	1.120.653	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
Guztira	665.445	1.140.611	Guztira	665.445	1.140.611

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA AHOLKUAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriak buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2011ko aurrekontua urte horretako maiatzean onetsi zen. Aurrekontu horretan badago gastu-kontusail bat 2009ko ekitaldiko diruzaintza-gerakin negatiboa konpentsatzeko; kontusail hori kultur etxe zaharreko lurra salduz lortuko ziren diru-sarrerekin finantzatu behar zen, baina azkenean ez da hala izan.

- Maileguen interesari eta amortizazioari dagozkien zenbait atxikitze-poltsatan gastuetarako jarritako kredituen mugak ez dira beti errespetatu.

- Ez dago jasota aurrekontu-aldaketak izapidetzeko prozedura sistematikorik.

- Udal inbentarioa, zeina 1995ekoa baita, ez da gaurkotu.

- Ez da aurkitu nabarmenezko moduko zenbatekoa duen 2011ko fakturarik, 2012ko aurrekontuari egotzi zaionik.

- Udalak 2011n hornitzaileei ordaintzeko erabili duen epeari buruzko azterketa eginik, ondorioztatzen da ezen, aztertutako laginari erreparatuta, arau indardunetan ezarritakoa betetzen ari dela, oro har. Ez da berandutza-interesik ordaindu hornitzaileei egindako ordainketengatik.

- Kontu orokorrek batera ez da kontularitza publikoko plan orokorrak adierazten duen kontularitzako memoria azaldu.

- Udalaren epe luzeko zorra, 2011ko abenduaren 31n 3,27 milioikoa, amortizatzeko egutegia honako taulan ageri da:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2012	334.352	10	10
2013	323.264	10	20
2014	300.826	9	29
2015	304.766	9	39
2016-2020	1.113.008	34	73
2021-2025	725.463	22	95
2026-2030	171.062	5	100
Guztira	3.272.742	100	

Gure aholkuak:

- *Udalaren aurrekontu orokor eta bakarra onestea, indarrean dagoen legedian ezarritako epeari jarraituz, kudeaketarako oinarrizko tresna izan dadin.*

- *Indarra duen legedian diruzaintza-gerakin negatiboak kitatzeko ezarritako neurriak hartzea.*

- *Gastuetarako kredituen izaera mugatzailea eta loteslea betetzen dela ziurtatzea.*

- *Aurrekontu-aldaketak izapidetzeko espedienteak osatzea, indarrean dagoen legedian ezarritako dokumentuak erantsiz.*

- *Udal inbentarioa onartzea, eta inbentarioko altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko.*

- *Finantzen egoera-orrien arteko beste egoera-orri bat balitz bezala osatzea kontabilitateko oroitazkia, eta garrantzizko informazio guztia sartzeko.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 4,48 milioi eurokoa da; hau da, 2011n sortutako gastu guztien ehuneko 55 eta gastu arrunten ehuneko 63.

2010eko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu hau ehuneko 2 gutxitu da, honako xehetasunen araber:

	Aitortutako betebeharrak		Aldearen ehunekoa
	2010	2011	
Goi-karguak	132.365	111.112	-16
Langile finkoak	2.647.197	2.622.248	-1
Aldi baterako langileak	254.547	250.647	-2
Gizarte-zamak	1.532.184	1.497.333	-2
1. kapitulua, guztira	4.566.293	4.481.340	-2

Langile finkoen atalean sartu dira bai funtzionarioen ordainsariak bai lan-kontratudun finkoenak.

Udalbatzak 2011ko maiatzean onartu zuen 2011ko plantilla organikoa, eta bertan, guztira, 110 lanpostu daude jasota –horietatik 37 lanpostu, hau da, ehuneko 34, hutsik daude–, koadro honetan erakusten den bezala banatuta:

	Lanpostu-kopurua	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Funtzionarioak	55	47	8	8
Lan-kontratudun finkoak	55	26	29	21

2011ko abenduaren 31n, Udalean 105 pertsonak egiten dute lan guztira, 2010ean baino 12 gutxiagok. Hona xehetasunak:

Langileak	Kopurua
Kontratu administratiboa dutenak	8
Funtzionarioak	47
Lan-kontratudun finkoak	26
Aldi baterako lan-kontratudunak	24
Guztira	105

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Zerbitzu orokorrak	14
Udaltzaingoa	21
Gizarte Zerbitzuak	16
Ikastetxeak	10
Haur Eskola	28
Kultura	1
Kirola	5
Obrak	10
Guztira	105

Langile horietatik ehuneko 62 Haur Eskolan, Udaltzaingoa eta Gizarte Zerbitzuen arloan ari dira.

2011n ez da langile finkoak kontratatzekeo prozesurik izan, baina mailaz igotzeko barne-sustapenak egin dira, indarra duen araudiari jarraituz.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, honako ondorioak atera ditugu: oro har, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daude; ordaindu diren lansariak betetako lanposturako erabakitakoak dira; ordainsari horiek 2011n izoztu dira, eta egindako atxikipenak zuzenak dira.

Hala ere, azpimarratzen dugu:

- 68/2009 Foru Dekretuak indarra hartu baino lehenagotik administrazio-kontratua duten langileek gradua eta familia-laguntza jaso dituzte 2011ko ekitaldian, baina osagarri horiek jasotzeari utzi diote 2012an.

- “Goi-karguak” atalean kontabilizatu dira Alkatetzaren ordainsariak zein zinegotziek Udalaren osoko bilkuretan, kide anitzeko beste organo batzuen bileretan eta informazio batzordeetan parte hartzeagatik jasotzen duten diru-saria. 2012an kontrol-prozedura ezarri da, udalkideek bilkuretan benetan parte hartzen duten kontrolatzeko.

Gure aholkuak:

- *Langile-gastuak aurrekontuari dagokion araudi indardunean ezarritako sailkapen ekonomikoaren arabera kontabilizatzea.*

- *Indarrean den araudiaren testuinguruan, aurrekontu-zuzkidura duten bete gabeko lanpostu guztiak enplegu-eskaintza publikoan sartzea.*

VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 1,97 milioi euro egin dute 2011ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 24 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 28 egiten dute. 2010. urtearen aldean, ehuneko 7 jaitsi dira.

Gutxitze hori, 2010eko datuekin alderatuta, justifikatzen da, funtsean, austeritaterako eta gastuei eusteko neurriak jarri direlako.

2011ko ekitaldian ez da muntako kontratu bat bera ere esleitu. Kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bat aztertuta, egiaztatu da ez dela kontratuen indarraldiari buruzko kontrol eta jarraipen zorrotzik egiten, eta kontratu bat detektatu da 1997. urtetik luzatzen ari dena. Halaber, zenbait kasutan izan den gastu-bolumena ikusita, beharrezkoa zatekeen zenbatekoari egokitutako kontratazio-prozedura bat izapidetzea.

Gure aholkuak:

- *Kontratuen indarraldiari buruzko kontrol eta jarraipen zorrotza egitea.*
- *Urteko gastuaren bolumena aldeztatik balioets daitekeen kasuetan, behar diren kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Horrelako gastuek 0,64 milioi egin dute, eta 2011n sortutako gastu guztien ehuneko 7,87 dira.

Gastu horiek ehuneko 39 hazi dira 2010ekoekin alderatuta, funtsean ekarpen handiagoak egin zaizkielako Iruñerriko Mankomunitateari hiri-garraiorako, eta epai batek eragindako gastua egotzi delako; izan ere, Udalak ia 100.000 euroko kalte-ordaina eman behar izan du lursail baten salmentaren inguruko auziarengatik.

Honakoak dira 2011n emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Onuraduna	Zenbatekoa
Eskualdeko Mankomunitatea	176.890
Hilarión Eslava Musika Eskola	108.983
Beti Onak	15.535
Karrikaluze	10.980
San Andres abesbatza	4.569

Egindako lanaren arabera, nabarmendu nahi dugu Udalak ez duela diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorrik, ezta, oro har, diru-laguntzen modalitateetarako ordenantza berezirik; diru-laguntzak, beraz, Alkatetzaren / zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez edo hitzarmen bidez arautzen dira.

Diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra edo diru-laguntzen modalitateetarako ordenantza berriazkoak onestea gomendatzen dugu.

VI.5. INBERTSIOAK

2011. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (0,71 milioi) ehuneko 86 bete da, eta 0,61 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 7.

2010arekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 78 –hau da, 2 milioi– egin dute behera.

2011n adjudikatutako honako espedienteak aztertu ditugu (zenbatekoak BEZik gabe):

Deskribapena	Kontratu mota	Adjudikatzeko prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa
Fruta-arbolaren pasealekuko urbanizazioa eta hornidura-sareak berritzea	Obrak	Irekia, Europako mugatik behera /eskaintzarik onuragarriena	215.816	5	182.299
Kultur Etxeko ekipamendua / Antzokia. 1. lotea. Antzokiko orrazia	Hornidura	Irekia, Europako mugatik behera /eskaintzarik onuragarriena	29.237	4	27.775
Kultur Etxeko ekipamendua / Antzokia. 2. lotea. Kutxa beltza, oihala eta gortinak	Hornidura	Irekia, Europako mugatik behera /eskaintzarik onuragarriena	53.390	4	44.800
Kultur Etxeko ekipamendua / Antzokia. 3. lotea. Soinua	Hornidura	Irekia, Europako mugatik behera /eskaintzarik onuragarriena	25.424	7	24.152
Kultur Etxeko ekipamendua / Antzokia. 4. lotea. Argiztapena	Hornidura	Irekia, Europako mugatik behera /eskaintzarik onuragarriena	42.373	5	38.015
Kultur Etxeko ekipamendua / Antzokia. 5. lotea. Ikus-entzunezko tresneria	Hornidura	Irekia, Europako mugatik behera /eskaintzarik onuragarriena	42.373	6	37.790
Kultur Etxeko ekipamendua / Altzariak 1. lotea. Altzari orokorrak	Hornidura	Irekia, Europako mugatik behera /eskaintzarik onuragarriena	40.678	7	32.542
Kultur Etxeko ekipamendua / Altzariak 2. lotea. Komuneko osagarriak	Hornidura	Irekia, Europako mugatik behera /eskaintzarik onuragarriena	3.390	4	2.649
Kultur Etxeko ekipamendua / Besaulkiak	Hornidura	Irekia, Europako mugatik behera /eskaintzarik onuragarriena	80.508	9	64.407

Aztertutako lehen kontratua 2012ra artekoa da, eta beste guztiak 2011. urtean bete dira, adjudikazioan ezarritako prezioan.

Kultur Etxeko loteak, espedienteetan, hornigaien askotarikotasun eta heterogeneotasunagatik justifikatu dira.

Kultur Etxeko ekipamenduak 401.190 euroko kostua izan du guztira, eta kostu hori Kultura Ministerioak emandako 400.000 euroko diru-laguntzarekin finantzatu da.

Egindako azterketak erakutsi duenez, espedienteak, oro har, indarrean dagoen araudiari jarraituz izapidetu dira, baina antzeman da espedienteen artxiboan ez dela jaso bildu beharreko dokumentazio guztia.

Gomendatzen dugu legedi indardunak eskatzen dituen dokumentu eta aginduzko txosten guztiak jaso daitezela kontratazio-espedienteetan.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2011ko ekitaldian aitortutako eskubideak 8,39 milioioak izan dira; ehuneko 93 eragiketa arruntengatiko diru-sarrereri dagozkie eta ehuneko 7, berriz, kapital-eragiketei.

Eragiketa arrunten artean tributu bidezko diru-sarrerak (3,6 milioi euro) eta transferentzia arruntak (4,1 milioi euro) nabarmentzen dira. Kapital-eragiketetan, kapital-transferentziak dira azpimarratzeak -0,5 milioi-.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 84koa izan da. Kapitulu guztietan ehunekoa batez bestekoaren gainetik dago, inbertsio errealen besterentzeen kapituluan izan ezik, hor betetzeportzentajea zero izan baita.

Ez dago hirigintzako eragiketen bidezko diru-sarrera nabarmenik.

2010. urtearen aldean, aitorturiko betebeharrak ehuneko 20 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak, 2010	Aitortutako eskubide garbiak, 2011	2011/2010 aldea
1 Zuzeneko zergak	2.365.708	2.442.820	3
2 Zeharkako zergak	121.711	238.939	96
3 Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	856.127	924.334	8
4 Transferentzia arruntak	4.271.987	4.086.273	-4
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	129.032	133.975	4
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	7.744.565	7.826.341	1
6 Inbertsioen besterentzea	0	0	0
7 Kapital-transferentziak	2.758.754	563.267	-80
Kapitaleko diru-sarrerak (6 eta 7)	2.758.754	563.267	-80
8 Finantza-aktiboak	0	0	0
9 Finantza-pasiboak	0	0	0
Finantza-eragiketen diru-sarrerak (8 eta 9)	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira	10.503.319	8.389.608	-20

Tributu bidezko diru-sarrek nabarmen egin dute gora -ehuneko zortzi-, eta garrantzitsuak dira, halaber, kapital-transferentzien eta transferentzia arrunten beherakadak: ehuneko 80koa eta ehuneko laukoa, hurrenez hurren.

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak (2010)	Aitortutako eskubideak (2011)	Aldea, portzentajea 2011/2010
Lurraren kontribuzioa	1.523.189	1.585.088	4
Ibilgailuak	477.557	481.033	1
Lurren balioaren igoera	218.700	238.996	9
JEZa	146.262	137.703	-6
EIOZa	121.711	238.939	96
Guztira	2.418.419	2.681.759	11

Zerga guztiek izan dute gehikuntza, JEZak izan ezik, hori ehuneko sei jaitsi baita. EIOZa ehuneko 96 hazi da, eta arrazoi nagusia da babes publikoko 36 etxebizitza eraiki direla UO-2 unitatean.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain/altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,3102	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balioaren igoera		
Gaurkotzearen koefizientea	3,2 - 3,4	2tik 3,8ra
Karga-tasa	14	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazio eta obrak	4,5-5	2 - 5

Tasa horiek izoztu egin dira 2010ekoan aldean, lurraren kontribuzioarena salbu, horrek ehuneko 4,4 egin baitu gora.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, aipagarriak iruditu zaizkigu honako datu hauek:

- Tasek eta prezio publikoek eusten dieten kostuen azterketak ez dira eguneratzen.
- EIOZean, ez dago jasota behin betiko likidazioa beti egiten denik burututako obraren benetako kostuaren arabera. Nolanahi ere, gaur egun, tributuak ikuskatzeko planaren barnean, obra guztiak berrikusten ari dira.

Gure aholkuak:

- *Tasek eta prezio publikoek eusten dieten kostuen azterketa eguneratzea.*
- *EIOZaren amaierako likidazioa obraren benetako kostuaren arabera egitea.*

VI.7. HIRIGINTZA

Atarrabiako Udalak ez du organo berezirik edo erakunde instrumentalik osatu hirigintzaren kudeaketarako. Administrazio-zerbitzu orokorren bitartez kudeatzen da.

Alor horretan laguntzeko, Udalak arkitekto baten, ingeniari baten eta arkitekto tekniko baten aholkularitza-zerbitzuak ditu kontratatuta. 2011n, kontratu horiek 36.968 euroko gastua eragin dute, aurreko ekitaldian baino ehuneko 22 handiagoa.

Atarrabiako Udalaren Lurraldearen Antolamenduari buruzko Plana 1996an onetsi zen. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean dauden planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko. 2004an Udalak plan orokor berria erredaktatzeko izapideei ekin zien; 2007ko maiatzean osatu zen eta onartzeko dago oraindik.

Ganbera honek nabarmendu nahi du luze jotzen ari dela hirigintza-planeamendu berria taxutu eta onesteko prozesua, nahiz eta tresna hori funtsezkoa izan udal plangintza eta kudeaketa egokietarako.

2013ko ekitaldian herritarrek parte hartzeko prozesu bati ekin zaio, udal plan orokor berria egiteko espedienteari bultzada eman nahian.

Udalak ez du Lurzoruaren Udal Ondarearen erregistro eta inbentario berezirik, ezta ondare horren konposizio baloraturik ere.

Gure aholkuak:

- *Hirigintza-plan orokor berria behingoz onestea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Legean aurreikusten dena betez.*

José Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta egin da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2013ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas